Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

117

AGINDUA, 2009ko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Bilbo Zaharra herrigune historikoa birgaitze integratuko area deklaratzeko espedientea hastekoa.

Ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko Eusko Jaurlaritzaren 317/2002 Dekretuaren 11. artikuluak Birgaitze Integratuko Area deklaratzeko espedientea hasteko prozedura ezartzen du. Horren arabera, Bilboko Udalak, 2009ko uztailaren 15ean Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailari igorritako idatziaren bidez, Bilbo Zaharra Herrigune Historikoa Birgaitze Integratuko Area deklaratzeko espedienteari hasiera eman zekiola eskatu zuen.

Eskaera horrekin batera horretarako beharrezkoa zen eta aipatutako Dekretuaren 11. artikuluko 2. puntuan deskribatuta zegoen dokumentazioa bidali zuen. Sail honetako zerbitzu teknikoek adierazitako dokumentazioa aztertu ondoren, eremu horrek «Birgaitze Integratuko Area» deklaratzeko baldintzak betetzen dituela ondorioztatu dute, haren hirigintza-interesa kontuan izanda. Horretarako, Administrazioaren esku-hartze berezi bat behar da eremu hori babestu, zaindu eta hobetzeko, aipatutako Dekretuaren 9. artikuluko 1. puntuan xedatutakoari jarraiki.

Bilbo Zaharra Herrigune Historikoa Birgaitze Integratuko Area izendatua izan zen Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren 1997ko otsailaren 24ko Aginduaren bidez, EHAAn 1997ko maiatzaren 8an argitaratua, agindu horretan atxikitutako mugaketaren arabera.

Geroztik, Bilbo Zaharra Herrigune Historikoko Birgaitze eta Erreformako Plan Bereziaren behinbetiko onartzea egin zen eta horrela jasotzen zuen EHAAk 1997.eko otsailaren 10ean. Han zehazten den mugaketa eremu-birgaigarria arinki aldatu egiten du. Egun, Birgaitze Integratuko Area handitzearen beharra ikusten da, 317/2002 Eusko Jaurlaritzako Dekretuaren baldintzak betetzen dituzten hainbat eraikinekin. Honek, gizarte eta hirigintza azterlanaren eremuaren handitzea behartzen du.

Azterlan berri honek lehen mugaketa aldatzen duenez, hasiera emate berri bat beharrezkoa da.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

117

ORDEN de 3 de noviembre de 2009, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, sobre incoación del expediente de declaración del Casco Histórico de Bilbao la Vieja como área de rehabilitación integrada.

El artículo 11 del Decreto del Gobierno Vasco 317/2002, de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de Rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado, establece el procedimiento para la incoación del expediente de declaración como Área de Rehabilitación Integrada, bajo cuyos auspicios el Ayuntamiento de Bilbao, mediante escrito remitido al Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transporte, con fecha 15 de julio de 2009, solicitó la incoación del expediente de declaración del Casco Histórico de Bilbao la Vieja, como Área de Rehabilitación Integrada.

Dicha solicitud iba acompañada de la documentación requerida al efecto y descrita en el punto 2 del artículo 11 del citado Decreto, de cuyo análisis por parte de los servicios técnicos de este Departamento, se desprende que en la zona en cuestión concurren las circunstancias para ser declarada «Área de Rehabilitación Integrada», debido a su interés urbanístico, debiendo ser sometida a una acción especial de la Administración tendente a su protección, conservación y mejora, de conformidad con lo dispuesto en el punto 1 del artículo 9 del reiterado Decreto.

El Casco Histórico de Bilbao la Vieja fue declarado como Área de Rehabilitación Integrada por Orden de 24 de febrero de 1997 del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, publicada el 8 de mayo de 1997 en el BOPV, de acuerdo con la delimitación recogida en la misma Orden.

Posteriormente, el Plan Especial de Rehabilitación y Reforma de Bilbao la Vieja, cuya aprobación definitiva viene anunciada el 10 de febrero de 1997 en el BOPV, modifica levemente la delimitación a rehabilitar. Actualmente se ve la necesidad de ampliar el Área de Rehabilitación Integrada con varios edificios que cumplen las condiciones del Decreto del Gobierno Vasco 317/2002, siendo necesaria la ampliación del ámbito del Estudio Socio-Urbanístico.

Este nuevo estudio modifica la primera delimitación, por lo que es precisa una nueva incoación.

Aplikatzekoa den araudia ikusirik, hau

XEDATU DUT:

1.– Bilbo Zaharra Herrigune Historikoa Birgaitze Integratuko Area deklaratzeko espedientea hastea, Agindu honen I. eranskinean agertzen den Eremuaren lehen mugaketako planoaren arabera.

2.– Birgaitze Plan Berezia egiteko epea hamaika hilabetekoa izango da, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

3.– Hasierako eta behin-behineko onarpenerako gehieneko epeak hamabi eta hamabost hilabetekoak izango dira hurrenez hurren, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasita.

4.– Abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren 11. artikuluko 3. puntuan xedatutakoa betez, Bilboko Udalak Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailari igorritako eta administrazio espedienteari gaineratutako dokumentuak Agindu honen eranskinak dira, ondoko hauek hain zuzen ere:

– I. eranskina: arearen mugaketako planoa.

– II. eranskina: espedientearen hasierari buruzko memoria deskribatzaile-justifikatzailea.

– III. eranskina: areari buruzko Gizarte eta Hirigintza Azterlana.

– IV. eranskina: birgaitze Integratuko Arearen barnean dauden kale eta atarien zerrenda.

5.– Espedientea hasteko Agindua, Arearen mugaketako planoarekin batera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 3a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

Vista la normativa de aplicación,

DISPONGO:

1.– Incoar el expediente de declaración como Área de Rehabilitación Integrada para el Casco Histórico de Bilbao la Vieja, según el plano de primera delimitación del Área que figura como anexo I a la presente Orden.

2.– El plazo para la formulación del Plan Especial de Rehabilitación será de once meses contados a partir del día siguiente a la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.– Los plazos máximos para la aprobación inicial y provisional serán de doce y quince meses, respectivamente, contados ambos desde la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

4.– En cumplimiento de lo dispuesto en el punto 3 del artículo 11 del Decreto 317/2002, de 30 de diciembre, constituyen anexos a la presente Orden, los documentos remitidos por el Ayuntamiento de Bilbao al Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes e incorporados al expediente administrativo, que a continuación se relacionan:

– Anexo I: plano de la delimitación del Área.

– Anexo II: memoria descriptivo-justificativa de la incoación.


– Anexo III: estudio socio-urbanístico del área.

– Anexo IV: relación de calles y portales incluidos en el Área de Rehabilitación Integrada.

5.– Publicar la Orden de incoación junto con el plano de la delimitación del Área en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del Territorio Histórico de Bizkaia.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de noviembre de 2009.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.


N
BIRGAITZE INTEGRATUKO EREMUA
- HASIERA -
CASCO HISTORICO DE BILBAO LA VIEJA
BILBO ZAHARRA HERRIGUNE HISTORIKOA
AREA DE REHABILITACION INTEGRADA
- INCOACION -
BIRGAITZE ETA ERREFORMAKO PLAN BEREZIA
BEHIN BETIKO ONARPENA
BOB 10.02.1997
PLAN ESPECIAL DE REHABLITACION Y REFORMA
APROBACION DEFINITIVA